

Banaketa zerrendak erabiltzean datuak babesteko jardunbide egokiak

Zer egin mezu bat onartu edo bidali aurretik

- **Berrikusi beti mezuaren edukia, onartu aurretik**
 - Ikusi ez duela **datu pertsonal identifikagarriak** (NAN, telefonoak, helbideak, banku kontuak, etab.).
 - Segurtatu ez duela **bereziki babestu beharreko daturik** (osasuna, ideologia, sexu orientazioa, erlijioa, etab.).
 - Ez bidali identifika daitezkeen pertsonen argazkirik.
- **Baloratu mezua argitaratzeko beharra**
 - Galdetu zeure buruari: informazio garrantzitsua da zerrenda osoarentzat?
 - Saiatu mezu gehiegi ez bidaltzen (beharrezkoak ez diren mezuak edo zerrendaren helburuarekin zerikusi gutxi dutenak).
- **Babestu pertsonen nortasuna**
 - Ez argitaratu izenen, helbideen edo beste datu pertsonalen zerrendarik.
 - Informazioa argitaratu behar baduzu, egizu modu anonimizatua edo agregatua.
- **Erabili neurrian posta elektronikoa**
 - Saia zaitez komunikazioaren helbururako behar-beharrezkoa den hori besterik ez zabaltzen.
- **Kontuz eranskinekin**
 - Ezinbestekoa ez bada, ez onartu datu pertsonalak dituen dokumenturik.
 - Beharrezkoa bada, erabili beste kanal seguruago batzuk.
- **Egiaztatu estekak eta kanpoko baliabideak**
 - Ez onartu esteka susmagarriak edo orri ez-ofiziale tarako estekak dituen mezurik.
- **Zerrendetako fitxategiak kudeatzea**
 - Behar-beharrezkoa ez bada, ez aktibatu mezuen fitxategia.
 - Zerrendak fitxategia behar badu, utzi sartzen soilik baimendutako kideei.
 - Berrikusi aldian behin fitxategiak, ziurtatzeko ez dagoela eskuragarri datu pertsonalak dituen mezurik.
- **Posta elektronikoari buruzko arautegiak gogoraraztea**
 - Sartu arautegietarako estekak:
<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2015001146>
- **Datu pertsonalak dituen mezu bat zabaldu bada**
 - Ezabatu berehala mezua fitxategitik.

- Aztertu zerrendako kide guztiei mezu bat bidaltzeko aukera, datu pertsonalak dituen mezua ezaba dezaten eskatzeko.
- Jakinarazi berehala **Erabiltzaileentzako Zerbitzuari**, segurtasun arrakalaren berri eman dezaten.

Egin behar ez diren gauzak

- Ikasle zerrendak eta haien kontaktu datuak dituzten mezuak onartzea.
- NANA edo agiri ofizialen kopiak bezalako dokumentuak dituzten mezuak zabaltzea.
- Aktak, kalifikazioak edo beste informazio akademiko batzuk izen-abizenekin zabaltzea.
- Unibertsitateko kideen informazio medikoa edo pertsonala argitaratzea.
- Zerrenda erabiltzea unibertsitateak onartutakoak ez diren helburuetarako (publizitatea, unibertsitatetik kanpoko jarduerak, etab.).

Gomendioak

- **Neurrian jokatzeta da gakoa:** berrikusi beti mezuak, zabaldu aurretik.
- **Pentsatu fitxategiaren edukian:** onartzen dena besteen eskura egon daiteke denbora luzez. Datu pertsonalak dituen mezu bat zabaldu bada, ezabatu fitxategitik.
- Mezu bat onartu aurretik **zalantzarik baduzu, galdetu** Datuak Babesteko Ordezkariari.